

HERNANI ETA BERTSOLARITZA

— Juan Jose Uria Zubiarrain —

Ezaugarri arras desberdinekin, jakina, baina bertsolaritza, munduan zehar, herri asko eta garai desberdinetan sortu eta garatutako fenomeno da. D. Manuel Lekuonaren ustez ordea, gurea bezain autentiko eta bizirik ez omen da inon izan. Eta seguru aski arrazoi izango zuen Lekuona “zaharrak” hori adierazterakoan. Gaur egun behintzat agerian da, nabarmen gainera, munduko herri askotan ohitura hau ahultzen eta desagertzen doan bitartean gure herrian zeharo indarberritu eta bilakaera guztiz interesgarri batetan aurkitzen dela.

Ahozko literatura eta bertsoen bidez kontatu eta kantatu izan dira historian zehar Euskal Herriko gertaera eta pasadizo asko eta asko. Alaiak batzuk, tristeak besteak. Amodiozkoak, gerrateak, gauza xelebreak, trajediak, e.a.

Beraz, poztu gaitezen euskaldunok aintzinatik datorkigun altxor hau gaurdaino iristeaz gain, garai desberdinetako hainbat eta hainbat histori gorde eta jakin arazi dizkigulako.

BERTSOLARITZA HERNANIN

Gezurra baldin badirudi ere harrigarria da, gure herri honekin, Hernanirekin lotura izan duten eta daukaten bertsolari zerrenda luze eta aberatsa. Esatera noana fanfarroikeritzat har dezake hemengo herri ez dakien edonorrek. Baina ez da hala. Entzun. Ez dut uste historian zehar, Euskal Herri osoan, herri bat aurki daitkeenik, Hernanik adina bertsolari ezagun eta on bilduko zuenik. Eta “bildu” aditza apropos ipini dut. Bertan, Hernanin jaiotako bertsolariak eta beste herriren batetan jaio arren, Hernanira bitiztera etorritakoak sartzen baitituz!

Eta bada herririk bertso tradizioa ondo gorde duenik. Baina bertsolaritzaren berri dugunetik hasi eta gaurdainoko kondaira luzea begiratzuz

gero, nere aurreko esaldi ausarti hori baieztatu besterik ez genuke egingo. Bertsoa askoz ere aintzinagokoa da zalantzarik gabe, baina erreferentzia garbi eta ugariena duela 200 urte ingurukoak dira. Ba, harian sartzen hasteko esan dezadan, garai haietan ere (XVIII. mendearen azkenaldea) agertzen dela hernaniar bat behintzat orduko bertsolari bakanen artean. Eta bertso munduan ospetsu izatera iritsi zen hernaniarra gainera. Ez dugu zoritxarrez bere bertsoen bilduma ugaririk, baina eskuratu ditugun bertso eta pasadizoez orduko bertsolaritzaren ezaugarri batzuk behintzat ongi erakusten dizkigute.

•JOSE JOAKIN ERROIZENEA INTXAUSPE “TXABOLATEGI”

Hauxe zen aipatu berri dudan bertsolaria. 1769an Ereñozu inguruko Txabolategi baserrian jaioa. Bai, behar bada, garai hartako bertsolari ospetsu eta ezagunena Fernando Amezketarra dugu, baina zeinek esan dezake Txabolategi hernaniarrak eta Zabala amezketarrak, Billabonako plazan 1801. urteko otsailean 4.000 bertsozaleren aurrean egindako bertso-apustu famatu hura bertsolaritzaren historian erreferentziazko zertzelada bat izan ez denik?

Puskatutako botella batetik esnea edan eta nonbait kristal puska bat irentsi ondoren hil zen Txabolategi. Heriotza zetorkiola antzemanda, bertso hau kantatu omen zuen:

*Espezia txarren bat
sartu zait barrenen,
bildur naiz nere billa
etorri ote den;
San Pedrok sar nazala
portalian, arren.
Hala komeni bada
biba Jesus, amen!*

● **JUAN FRANCISCO DE BELAUNZARAN Y ZABALA, "PATXI BAKALLO"**

Ez, Patxi Bakallo ez zen Hernanin jaio, baina aita hernaniarra eta ama Aranokoa zituelarik, Errenterian jaio eta 24 urte zituenean (1856ko abenduaren 26an) Hernanin ezkondu eta Osiñaga auzoko Oianeder baserrian bizi izan



Patxi Bakallo.

zen. Xenpelar haundiaren garaikoa beraz, eta zenbaitek esan duenez, 1875 inguruan, bigarren karlistadaren parean Argentinara joan izan ez balitz, orduko bertsolari onenen pareko izan zatekeen. Hernaniko aiton zahar bati entzuna omen dio Aita Zabala bertso biltzaileak nola ikusi zituen Xenpelar eta P. Bakallo Hernaniko plazan, Kale Nagusiko kantoiean elkarrekin bertsoetan.

Oianeder ondoko Txurdiñanean neska bertsolaria omen zegoen. Eta Patxirekin alkartzen zenean, askotan egiten omen zuten bertsoetan. Patxiren alaba bat gau batez jaio eta hurrengo goizean honoko bertso ezagun hau kantatu omen zuen Patxik jaiotzaren berri eman asmoz:

*Bertsoa botako det
leihotik leihora,
bart gure etxe hontan
alaba jaio da;
inork nahi badu etorri
horren bataiora,
haur horren gurasoa
Patxi Bakallo da.*

Eta Xenpelarrek bertso honen berri izan zenean, beste hau kantatu omen zuen Bakalloren-tzat:

*Beraz andria dezu
hezur berritua,
hala eman didazu
neri mandatua;
bankete bat eiteko
badet desiua,
abisatu zaidazu
noiz dan bataiua.*

Zer ote zuen Hernanik orduan, gure hurrengo protagonista ere, 1839an Andoainen jaio eta, heldu samarra hori bai, 1891ean Hernanira etortzeko?

● **PEDRO SANTA KRUZ**

Adunako baserri batetan maizter zegoelarik mutil-zaharren bertso sorta bat jarri zuen. Baserriko nagusia mutil-zahar izaki, eta bertsoak berarentzat zirelakoan, Santa Kruzek alde egin behar izan zuen handik. Eta, hain zuzen, Ereñozu bailarako Alkatxuin baserrira etorri zen 1905ean bertan hil zen arte.

Akola baserriko seme bat, soldaduzkatik ihes eginik, Ameriketara joan omen zen. Pedro Santa Kruzek, auzokoa izanik, Epeleraino lagundu omen zion. Eta horixe gogora arazten omen zion geroago Ameriketara bidali zion bertso sorta batetan. Gogora dezagun hauetariko bat:

*Agur bana eginaz
alkarri begira,
Epeleko langan zan
gure despedira;
begitikan malkua,
eskuari tira,
juan behar zenduela
oso urrutira...
bost aldiz oroitzen zait
orduko partira.*

Hernanik eta agian Euskal Herriak eman duen bertsolari emankor eta haundienaren aipamena egin behar dut ondoren.

● **JOSE MANUEL LUJANBIO RETEGI, "TXIRRITA"**

Ereñozuko Laxen 1860. urtean jaio eta 1936ko ekainaren 3an hil zen Altzako Gazte-luene baserrian.

1930. urtean (berak 70 izango zituen orduan), gazte denborako lagun eta gertaerak gogoratzten zituen bertso batzutan. Pare bat doakizue ondoren:



Txirritaren Monumentua. Erenotzu Auzoan.

Milla zortzirehun hirurogeita
hamalau urte urrian,
lehenengo plazan kantatu nuen
nik Hernaniko lurrian,
San Antonio deitzen diogun
ermita baten aurrian,
lagunak alkar ixtimatuaz
lehengo ohitura zaharrian.

Orduko hango bertsolariek
lau lagun giñan guziyak,
Hernanin bertan bataiatuak,
barrio hortan haziak,
Joxe Migel ta Erramun hillak,
ni ta Juan Mari biziak,
San Antoniyok merezi duta
eman zaizkagun graziyak.

Txirritaren bertso ezagunenetakoa, Pello Errotarekin kantatu zuen hura izango da, Txirritaren alkandora zela medio:

PELLO ERROTAK:

Ari naizela, ari naizela,
hor ikusten det Txirrita,
eta zein ez da harrituko gaur
gizon hori ikusita?
Dudarik gabe egiña dio
andregaiari bixita:
oso dotore etorri zaigu
bi alkandora jantzita.

TXIRRITAK:

Hauxe da lotsa eman didana
gizon artera sartuta,
edozer gauza esaten degu
ardo tantakin poztuta,
bi alkandora ekarri ditut
bat eraztia ahaztuta,
Pellok bi nola jantziko ditu
bat besterikan ez duta.

Epeleko presa egiten ari zela, Fagollagan zegoen ostatu. Hango etxeakoandreak egunero bidaltzen omen zion gosaria. Behin orde, ez zion bidali eta Epeleko-Etxeberriko morroia ikusi eta bertso hau bota omen zion:

Penagarriak izaten dira
arlotiaren pausuak,
adiskideak gera zu ta ni,
eta gainera auzuak,
gosaririkan ez dit bialdu
Fagollagako atsuak,
laster ageri ez baldin bada
ahaztuko dira bertsuak.

San Juan bezperako errondan askotan ibili zen Txirrita koplari. Aguazil kastellano txiki bati honela kantatu omen zion ezpata atera zion batean:

Kapapetikan atera digu
ahun da halako ezpata,
jende guztia ikaratu du,
hiru arrua ez data.

Zaraguetanean urtetik urtera gutxiago ematen omen zieten eta hauxe esan zien Txirritak:

Orain bi urte durua zan da,
joan dan urtean bi peña,
ni engaiñatzen ez baldin banaiz
aurten xentimorik ezta.

1.936ko II.Bertsolari Egunaren irabazle Txirrita gertatu zen, Uztapide gaztearen aurretik. Gerra hasteko zegoen artean baina juxtu gai honen gainean kantatu behar izan zuten bertsolariek. Txirritak noski, bere ukitua eman zion gaia-ri eta gero oso ezaguna egin zaigun bertso hau kantatu zuen:

Zenbat errezo egin izan det
nere denboran elizan,
ta pozik nago ikusirikan
pakian nola gabiltzan.
Ni naizen bezain kobarderikan
iñor ezin leike izan,
semeak gerra ez joateatik
mutil zahar gelditu nintzan.

Bukatzeko bertso gogoangarri bat ipiniko dugu. Txirritak bere aitamenen sententzia adierazten duena.

Gazte gazterik hasi nintzan da
oraindaiño bitartian,
zenbat umore eder jarri det
Kantabriako partian,
pixka batian ez naiz ahaztuko
sartuagatik lurpian,
nere aitamenak izango dira
beste larogei urtian.

Txirrita 1936ko ekainaren 3an hil zen. Horra nola zekarren urrengo eguneko "El Día" egunkariak bere heriotzaren berri:

"Triste noticia. Txirrita ha muerto. El ataque que días pasados, según dábamos cuenta a los lectores, sufrió en las fiestas de Goizueta el popular bertsolari Txirrita, culminó ayer tarde en el último suspiro que con admirable resignación cristiana exhaló nuestro vate".

•JOSE ARIZTIMUNO, "AITZOL"

Ez. Aitzol ere ez zen hernaniarra. Tolosan ikusi zuen argia lehen aldiz 1896an, baina Hernani izan zen bere destino lazgarriaren testigu mutu. Gure herriko hilherriko



José Ariztimuno "Aitzol"

paretetan fusilatu bait zuten 1936ko urriaren 17an, euskal kultura eta bereziki bertsoaritzazaindu eta antolatzen hainbeste saiatu zen euskalzale amorratu hau. Har ezazue bere aipamen hau, hil aurretik egindako lan eta izandako eraginaren aitormen gisa.



Olegario Garin.

• OLEGARIO GARIN

Olegarioren inguruan ere zeozer esan beharra dago. 1844an jaioa, ez zen jaso berak kantatutako bertso asko. Badakigu ordea, tarteka, Udarregi, Pello Errota, Gaztelu, Txirrita eta abarrekin kantatu zuela.

Horra nola kantatu zion Pello Errotari karro txiki bat konpondu ondoren:


*Karro txiki polit bat
astuarentzako,
Pellok enkargatu nau
egiteko ondo,
material iharrakin
lodi eta sendo,
bestela ez diola
luzaro iraungo,
baina pagatu gabe
ez dek eramango.*

• SAIBURU ANAIK

Txirritaren lehengusu propioak ziren hiru anaien aipamenik egin gabe ez nuke aurrera jo nahi. Juan Jose, Nikolas eta Anjel Lujanbio. Hernaniko semeak hirurak baina azkar samar Erreterriako Saiburu baserrira joandakoak.

• JOXE OIARBIDE, "TTANTTUA"

Txirritaren garaikoa. 1987an hil bazen ere, 1907. urtean jaio eta Txirrita auzoan jaioa zenez, berarekin inoiz kantatzeko aukera ere izan zuen. Florian (semeak) pasa digun Joxeren bertso hau jarriko dugu:



Ttanttua.

*Latxeko zerrariyak
dira gizon latzak.
Langilleak fuerteak
eta mutur beltzak.
Kalderak kanpoz apain
barrendikan hutsak.
Eztittue ikaratuko
muturreko lotsak.*

BAZTANGA HERNANIN

Gertaera hau oso ezaguna da Hernanin eta inguruetan. 1918ko apirilaren 2an zen. Baztanga gaitza zekarten gaixo talde bat omen zetorren Lasartetik Hernanira. Hernaniarrei ez zitzaien, nonbait, batere ondo iruditu eta herri osoa bat eginik bidera atera zitzaien, gaixo zetozenek aurrera egin ez zezaten. Gertaera ikusgarri honek bertso batzuk merezi zituela iruditu zitzaion Josefa Zubeldia hernaniarrari eta bai sail eder eta luzea jarri ere. Ongi asko adierazten ditu gertatutako zehaztasun guztiak. Gogora ditza-gun pare bat bertso:

*Apirilaren biyan
Hernaniko herriya
lau ordutan egon zan
ikaragarriya,
karraxi ta diarka
orduko larriya,
eskerrak genduela
batasun haundiya.*

*Zibilla pranko baizan
zaldi galantakin,
guri desapiyoka
beren ezpatakin,
ez giñan ez izutu
hoyek guziyakin,
denok atera giñan
mirari haundiya.*

• MIGEL AROZAMENA

Jakina da Migel nafarra zala, Lesakan jaioa hain zuzen, 1930eko abuztuan. Baina zazpi urte besterik ez zituenean Hernanira etorri zen familia guzia. Hasera batean Martindegi auzora



Lasarte, Arozamena, Uztapide eta Lizaso, Galarreta Frontoian (1.971).

eta gero kalean bertan bizi izan zen, bihotzekoak emanda 1976an hil zen arte. Nafarroako eta Euskal Herriko txapelketetan parte hartu zuelarik, emaitzarik onenak Nafarroan lortu zituen. Hiru aldiz eskuratu zuen Txapeldun saria (1962, 1963, 1966). 1963. urtean txapela bururatu ondoren bertso hau kantatu zuen:

*Goizian jaiki Iruña aldera
lendabiziko jokera,
maitetasuna izango zala
ematen nion tankera;
len larru gorri bizittu eta
gaur badaukagu jazkera,
pixkana pixkan indartutzeko
ikasi gendun izkera;
danon artean maita ditzagun
Fueroak eta Euskera.*

Zikuñagako Amabirjiñari jarritako bertso sorta batetik ondorengo biak aukeratu ditugu:

*Ermita hori egin zan
alkar lagunduta,
pareta hoiek jasotzen
asko nekatuta;
Amak hartutzen gaitu
beso zabalduta,
negar egingo luke
hortikan kenduta.*

*Gure guraso zarrak
haien aurrekuak,
Zikuñagako Amak
maitatutakuak,
bere magal
maitian
goxatutakuak;
guk ezin oinperatu
haik utzitakuak.*

● PABLO ZUBIARRAIN, "HERNANI-TXIKIYA"

Urumea bailarako Telleri baserrian jaioa, gazterik hasi zen bertsoan. Berak inoiz esan digun bezala, 17 urterekin hain zuzen. 1929. urtea izango zen Ereñozuko San Antonio aurrean,

Saiburu, Txirrita, Frantsez-Txikia eta Ttan-ttuarekin lehen aldiz kantatu zuenean. Hori kontutan izanik, Paulok hiru edo lau belaunaldi desberdinekin kantatu duela esan daiteke; ze Txirrita eta bere garaiko bertsolariekin hasi baldin bazen, gero Basarri, Uztapide eta Zepairekin ere kantatu zuen. Geroago berri, Mitxele-na, Lasarte, Lizaso eta Arozamenarekin ere bai, eta geroztik, plazetatik erretiraturik egon arren, tarteka kantatzen du gaurko bertsolari gazteekin, duela gutxi Hernaniko Zaharren Egoitzan gertatu zen bezala. Hortik atera kontuak! Hernani Txikia.



Ongi merezitako bi omenaldi izan ditu azken urteotan. Bata Euskal Herri mailan, Loidisaletxerekin batera eskaini zitzaiona eta bestea Hernaniko Elur-Txoriren eskutik 1987an gure herrian egin zitzaiona. Aurreneko omenaldikoak dira ondorengo bi bertsoak eta Hernanin egin zitzaionekoak beste biak:

*Hementxe gaude denok
pozak zoratutzen,
batzuek kantatu ta
besteak entzuten,
urteak joango zaizkit
egun hau aztutzen,
ta ez badiguzute
zuek barkatutzen
lan ederra daukagu
zor hau pagatutzen.*

*Eskertu nahi zaituztet
al nezaken gisan,
guretzako gaiztoak
ez zerate izan,
erregutuko diot
Jaunari elizan,
entzule maite hauek
zintzo gorde ditzan
nor bere etxean ta
geroko bizitzan.*

*Eskerrak gorde dezutelako
neretzako aiña toki,
ondo badakit zuekin zorraz
izango detela beti,
nahiago nuke gauko esker hau
nola ordaindu baneki,
baina inalak egingo ditut
ez kezkarikan eduki.*

*Gora ElurTxori, seme lehialen
beteta zauden kabiya,
berdin zu ere Udaletxea
baita-re egunkariya,
ta zu nola ez aurrean zauden
entzule maitagarriya,
bertso zaleak nola zeraten
gaur ikusten da egiya,
zuek bizirik zeraten arte
ez da galduko herriya.*

• JUANITO MARKO

Bertso jartzai-
le fina da Juani-
to. Bapatean ere
aritu zen ordea
eta bertsolari
onekin gainera.
Txapelketa saio
batzutan ere
parte hartu zuen
baina ez zen lu-
zaro aritu plaze-
tan. Juanitok ere,
beste batzuk be-
zala, lehendabi-
zikoz Ereñozun kantatu zuen. Saiburu eta Pau-
lo-Txikirekin izan zen. Etortzekoa zen Mitxelena
ez omen zen agertu eta honen ordeztu jarri zuten
kantari. Saibururi kantatu zion bertsoa doakizue
ondoren, eta noski, Saibururen erantzuna ere
bai:



Juanito Marko.

*Aldamenetik esan didate
aitona atakatzeko,
neronek ere abildaderik
ez daukat aguantatzeko,
pentsamentua egiña daukat
zuri gauz bat galdetzeko:
ea neretzat moduko alabik
bai al daukazun saltzeko.*

*Aizu gaztia emango dizut
zure hitzaren ordaiña,
alabarekin prezisamente
ez det agindutzen baiña,
larogei kilo pasatakua
nik bat badaukat bikaiña,
iruditzen zat izango dala
mutil batentzako aiña.*

Bapatekoa utzi eta bertso jarrietan lan haun-
dia egin duela esan behar da.

• JULIAN EZEIZA "ATERPE" ETA ANTTON GARIN

Hernaniko bertsolaritzaren zertzeladaotan bi
gizon hauek aipatu gabe uztea ez da komeni. Izan
dezaketen maila aparte utzita, azken hamabost
urteotan eskaini duten borondatearengatik ba-
tez ere. Santa Ageda bezpera edo San Joan erron-
da dela, Santa Barbarako San Inazio festak di-
rela, e.a., hantxe falta duen lagun bati jarritako
bertsoa eta Aterpek gazte denbora gogoan due-
nekoa doazkizue:

*Denbora bada falta zerala
laguna zu hemendikan,
baiña ez pentsa ahaztu geranik
herritarrak oraindikan,
honuntz begira egoten zera
zu gelako leihotikan,
askatasuna etorriko da
ez gabiltza alperrikan.*

*Gaztetako ibillerak
goguan dauzkat nik,
jan edanik ez falta
ta ain gutxi lanik,
urte hoitan ez da ez
nekatzen pertsonik,
ordun ez gendun uste
zartuko giñanik.*

• TTURKO ANAIAK

Denetarik egin dute Joxe Mari eta Juan Or-
mazabalek. Garai batean bertsolari on askorekin
kantatzeaz gain (Mitxelena, Lizaso, Lasarte,
e.a.) Hernaniko kaleetan hamaika aldiz aritu
dira bertsoen bidez umore apur bat jarri asmoz.
Ondoren ikusten dituzuen bi bertso hauetatik
lehenengoa Joxe Marik espetxean dagoen
"Beltza"ri jarritako sorta batetik hartutakoa da.
Eta bigarrena Iñaki Aranzadi apaizak eman di-
gun bertsoa da. Basarri bertsolari haundiak
puntua jarri eta Juanen erantzuna.



Tturko (Jose Mari), Anatx, Aristorena, Aterpe,
Eizmendi eta Garin.

*Kanarias aldera
joan behar soldadu,
horretan ere suerte
txarra izandu,
naiz errurik ez izan
hortxe hintzan galdu,
hartu ta itzalera
hinduten bialdu,
ez dek inor saldu,
arrazoiai heldu,
zein haizen azaldu,
gizonak beti gizon
merezi ez al du,
izan behar du.*

BASARRIK:

*Zer moduz aurkitzen da
zure behi pintua:*

ERANTZUNA:

*jateko kontu hortan
ez dago tontua,
tratantek saldu aurrez
bazuten kontua,
orain honi nork kendu
esnean tantua.*

BESTE ZENBAIT

Bada beste bertsolari sorta bat, kanpoan jaio
arren orain Hernanin bizi direnak edo ia ia her-
naniartzat har daitezkeenak. Esate baterako
Manuel Arozamena, Joxe Fermin Argiñarena eta
Antonio Olano nafarrak, edo Jose Luis Lekuona
"Lexoti" eta Sebastian Salaberria oiartzuarrak.
Denen historiala eta bertsoak sartzeko lekuri ez

dugunez, azken aipatutako Sebastian Salaberrriaren bertso pare bat ipiniko dizkizuet. Bera Hernanin bizi da aspaldi samarretik eta aurten 78 urte egingo dituen gizon honek azken boladan gertaera latz samarrak bizi behar izan baditu ere, beti lanerako eta idazteko gogoz aurkitzen dugu. 1991ean hil zitzaion alabari jarritako bertso sailetik ateratakoak dituzue biok:

*Usai gozoa duen arrosak
arantzak ere baditu,
hiru urte ta erdi pasean
ez dezu gutxi sufritu,
gauean miñez oheratu ta
goizean miñez zutitu,
sendagileak bere aldetik
alegiñak egin ditu,
heriotzeko azken agurrak
danok nahigabetu gaitu.*

*Azken agurra egin diguzu
aingeru baten moduan,
baina arnasik dedan artean
izango zaitut goguan,
ta opa dizut Jainko Altsuak
hartu zaitzala zeruan,
neronek ere hauxe eskatu
nahi nuke azken orduan,
hemen bezela izan gaitezen
Lurdes alkarren onduan.*

ORAINA ETA GEROA

Orain artekoa historia izan dela esan daiteke. Baina zertan da gaur egun bertsolaritza Hernanin? Edo beste modu batera esateko, bai al du jarraipenik gure herrian orain arte izan dugun bertsolari sortak? Ba, baietz erantzun behar da nahi eta nahi ez. Ez dago ukatzerik Hernanin, azken 10-12 urteotan egindako lan serioak eman duela fruitu eta emaitzarik. Idazlan honen haseran fanfarroikeritzat har zitekeen afirmazio hura bota dudanean gaurko egoera ere banuen kontutan. Oraingo egoerarekin lotzen nuen lehena. Ze, zein herrik esan dezake Euskal Herri osoan 1980 ezkerro Hernanik adina txapel eta sari herriratu duenik haur eta gazteen txapelketa eta saioetan, Paulo Joxe Aristorena, Jon Eizmendi, Joxe Luis Urdangarin, Gorka Tolosa, Iñaki Zelaia, Unai Agirre, Maddalen Lujanbio, Aitor Lasarte, Juan Joxe Usarraga eta abarrek ekarri dizkiguten antzera?. Eta gazteak izanik, saiatzen direna jakinda, nola ez itxaropentsu egon egoera honen aurrean?



Maialen Lujanbio.

Eskola-ikastoletako haurrak orain arte bezain langile jarraituz gero, datozen urteetan ere emango du Hernanik zer esanik bertso munduan. Her-

naniko Bertso-Eskola, gorago aipatu ditudan izen horiez gain, beste "ale" garrantzitsu batzuz hornitzen da. Esate baterako, Andoainen jaio eta bertsolari Hernanin egindako Aitor Mendiluze; Urnietan jaio eta Hernanin "bizi" den J.M Mujika "Anatx", e.a., e.a.. Denek -hernaniarrek eta "ordu gehien Hernanin pasatzen" dituzten besteok -, etorkizun duhin eta dotorerik izan dezakete saiatuz gero.

Denen bertsoak jartzen hasiko bagina liburu oso bat beharko genuke. Beraz, hiru-lauena bakarrik jarri beharrean aurkitzen gara.



Ezkerretik eskubira: Aitor Mendiluze, Iker Artola, Gorka Tolosa, Jon Iraola, Iker Osa, Unai Agirre, Eñaut Agirre, Iker Zelaia.

1986an Eskolarteko VI. Txapelketa ospatu zen. Eta txapeldun eta txapeldun ordea hernaniarrak suertatu ziren. P.J. Aristorena eta Jon Eizmendi hain zuzen. Gaietako bat hauxe izan zuten: Kale berean J. Eizmendi tabernaria zen eta Paulo bejetariano denda baten jabea. Besteak beste, bertso hauek kantatu zituzten. Lehena Jonek, bigarrena Paulok:

*Dendagintzara bultzatu ginun
negoziozko hariak,
gure aurrean saltzen ditugu
txit jenero ugariak,
hilak daudenak piztutzen ditu
nun nahi nere edariak,
beste aldeko gauzak dirade
belarra eta haragiak.*

*Zenbat mesede egin dedan nik
ez naiz esaten ariko,
haueri esker hamaika mozkor
da kalean ibiliko,
batetik dute gibela gaizki
eta azido uriko,
gero nigana etorri behar
bertan ez badira hilko.*

1990ean Unai Agirre bigarren gelditu zen haundien mailan. Horra jarri zioten puntua eta bere erantzuna.

*Puntua: Ofizio polita
da kazetaritza ...*

*Erantzuna: Nere ustez ederki
egin dezu hitza,
hortan sartu nehiean
aspaldi gabiltza,
bertan eman nahi bait du
Agirrek bizitza.*

Maddalen Lujanbiok berriz, Usurbilen, 1991eko martxoaren 9an, gaia Martxoaren zortzia zuelarik, honela kantatu zuen:

*Urtean behin holako eguna
behar du emakumeak,
beti lanean, beti etxean,
eginkizunez beteak,
buelta ematen hasiak gera
bertso munduko gazteak,
bertsotan neskak bagabiltzala
ikus dezala jendeak.*

BERTSO JARTZAILEAK

Orain artean aipatutako bapateko bertsolari asko bertso-paperetan aritutakoak ere badira. Beraz, oraindik aipatu ez ditudan pare bat edo hiruren berri emango dut ondoren.

• FLORIAN OIARBIDE

Florianek bapatean ere ongi asko egin ohi du bertsotan, baina plazari zor zaion errespetoagatik edo, aldendu egin zen publikoaren aurrean kantatzetik eta idazteari ekin zion. Eta bertsolari sen hori duenez bertso jartzaile ederra bihurtu zen Florian. Aurki, Aita Zavalaren eskutik liburu bat ere argitara dezake, azken urteetan egindako bertsoekin. Hona Ameriketara joan zitzaion lagun bati jarritako bertso sortatik aukeratu ditugun biak:

*Bakarrik joan zinan zu
nik ezin lagundu,
zuga nere bihotza
zitzaidan bigundu,
ondorena ez nuen
ederra izandu,
oroitzapenik ezin
burutikan kendu,
lagun on bat galtzeak
pena ematen du.*

*Lagun handiak ginan
gu txikitandikan,
gaur oso apartean
egonagatikan.
Ni Euskalerrin nago
ta zu Amerikan,
baina ez det galduko
nere bururikan,
berriz besarkatzeko
itxaropenikan.*

• JOXE MARI ARRIETA

Orain bertso-eskolako gazteak hasi badira ere, azken urteotako gai-jartzaile ia ia ofiziala izan da Joxe Mari. Bertso saioa non Joxe Mari han izaten zen gehienetan. Eta bertso jartzaile bezala dituen dohaiak ez ditut orain deskubrituko. Ondoren ipintzen ditudan bi bertsotan ederki konturaturako zarete Joxe Mariren "abildadeetaz". Manuel Matxaini jarritako bertsoak dira:

*Zuretzako bertsoak
hemen dauzkat gertu,
Matxain tar Manuel, nahi
zinduzket eskertu.
Baina nola ez jakin,
mesedez, ulertu;
nere izen kaxkarra
gehiegi edertu,
eta lotsaren lotsez
bihotz dana lertu.*

*Aietetik kantuan
ari zeran txori,
pakezalea zera,
haundia da hori;
naiz eta izan beltza
zuri edo hori,
gizatasunez baldin
bagabiltza lori,
gerrarik ezin opa
munduan iñori.*

• JUAN JOSE URIA

Ez, etzazue pentsa neure burua goraltzen hasi behar dudarik. Horixe bakarrik falta zen! Soil soilik esan, bertsolaritza gertutik jarraitzea gus-tatu izan zaidala, eta beste askok bezala, langile soil modura, ahal izan dudana apurra eskaintzen saiatu naizela azken 15-20 urteotan. Besterik ez. Bueno, goraldu ez baina bajatu ere ez. Beraz esan dezadan bertso paperetan baditudala sari batzuk irabaziak eta muestratxo hauek uzten dizkizue-dala nere "produziotik" atereak. Itsasoari jarri-tako bertso sorta batetik aukeratu ditut:

*Itsas barruko sentsazioak
ia ez daitezke asma,
noiz nahi baketsu edota noiz nahi
enbata latz baten zama,
gerta liteke egun sentiko
lehen argi printzen xarma,
edo pizten da alarma:
uhin haundiek bere mendekuz
ekar dezaketen drama,
horregatikan itsasoa da
bi intentzioko arma.*

*Itsasoaren edertasunaz
maiz harro da marinela,
uhinak ere bilutsik beren
hits gardenara dariela,
horrexegatik ez bada nola
sinets daiteke bestela,
itsas aberats itzela,
ortze haunditik izarra ere
miresten omen dutela,
ilunabarrez portuan dauden
maiteminduek bezela.*

Bukatzeko, idazlan honen inguruan gauza pa-re baten argibidea eman nahi nuke. Alde batetik informazio iturria kasu batzutan neronek lan-dutakoa izan bada ere, zalantzarik gabe, Aita Zavalak argitaraturiko liburuetan oinarritu nai-zela nagusiki. Bestalde esan behar da lan honek nahi eta ez, izango dituela, seguruenik, hutsu-neak; aipatu gabekoren bat esate baterako (edo espazio faltaz edo neronen errakuntzaz. Kasu honetan barkamena eskatu beharra daukat). Eta azkenik, guzti hau hurbilketa bat besterik ez dela izan argitu nahi nuke. Askoz ere materiale gehia-go dago eta dugu. Beraz, lan honek beste lan de-xente zabal eta sakonago baten atarian jar gai-tzake. Baina horrek beste marko batetan behar-ko du izan. ○